

**ASTIGARRAGAKO
EMAKUME ETA GIZONEN
ARTEKO
BERDINTASUNERAKO
II PLANA
(2015-2018)**

AURKIBIDEA

1. AURKEZPENA	3
2. SARRERA.....	4
3. PRINTZIPIO ESTRATEGIKOAK	13
4. DATU DEMOGRAFIKOAK	15
5. BERDINTASUN PLANAREN EGITURA.....	16
6. JARDUERA ARLOAK.....	18
1. ARLOA - EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO GOBERNANTZA	18
2. ARLOA- HIRIGINTZA, ETXEBIZITZA ETA INGURUMENA.....	22
3. ARLOA- KULTURA	25
4. ARLOA- GAZTEDIA ETA KIROLA	28
5. ARLOA- OSASUNA, GIZARTE ONGIZATEA ETA INMIGRAZIOA	36
6. ARLOA- HEZKUNTZA	42
7. ARLOA - GIZARTE PARTAIDETZA	45
8. ARLOA- ENPLEGUA.....	48
7. ABIAN JARRI, JARRAIPENA ETA EBALUAKETA EGITEKO SISTEMA	52
8. ABIAN JARTZEKO / PROGRAMAZIOA EGITEKO SISTEMA.....	55

1. AURKEZPENA

2009. urtetik Astigarragako udala baikor dator lanean, lehenengo Gizarte Ongizate arlotik, eta Herritarren Partaidetza eta Berdintasun arlotik orain, emakume eta gizonen arteko benetako berdintasuna lortzeko. Emakume eta Gizonen arteko II Berdintasun Planarekin, hildo honetan aurrerapausuak ematen jarraitu nahi dugu, uste dugulako berdintasunaren alde lan egitea, pertsonen osoko garapena kontutan hartzea dela, justizia bilatzen duen gizarte baten testuinguruan.

Gizarte aldaketa eta erronka ekonomikoko momentu honetan, inoiz baino garrantzitsuago deritzogu berdintasunerako politika publikoen alde egitea eta, horregatik, hurrengo urtetarako ardatz nagusiak balio aldaketa eta ahalduzkoa, gizarte antolakuntza erantzukidea eta emakumeen aurkako indarkeria desagerraraztea izatea nahi izan dugu.

Horregatik, **Astigarragako emakumeen bizi kalitatea hobetzea buruan sartuta** daukan udal jardueran berresten gara, **batez ere krisi garai honetan**, gero eta indar handiagoarekin ematen hari delako **txirotasunaren feminizazioa**. Baita ere **gazteen artean emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa, sentsibilizazioa eta antzematea**, eta **jende gaztearen artean maskulinitate eta feminitate eredu berriak** sustatuz, **estereotipo sexistetatik haratago**.

Ezin dugu ahaztu, berdintasunaren alde lan egitea etorkizuneko inbertsioa dela, baita gizarte justiziarantz begiratzen duten politika berrien erronka handiena, eta emakumezko zein gizonetzko herritarrak izan behar dituenak helburu.

Uste dugu Bigarren Berdintasun Plan hau udalari prozesu eta neurri eraginkorrak eskeiniko dizkien eragile nagusia bilakatuko dela, urrutiko utopia izateari utzi eta eskuragarri dugun eta gero eta gure herritik gertuago dagoen errealitate bilakatuko den berdintasuna lortzeko.

Amaitzeko, eskerrak eman nahi nizkieke, parte hartu duten talde politiko eta teknikariei, baita elkarte eta taldeei, berriro ere ilusioz jaiotzen den proiektu honetan egindako ekarpenengatik. Ziur nago, emakumezkoen eta gizonetzkoen bizi kalitatea hobetuko duela, berdintasuna danon kontua delako, bai emakumeena zein gizonena, eta honetaz jabetzeak danok lortu nahi dugun parekidetasunerantz pausu sendoa ematea esan nahi du.

Agur parekide bat

Isabel Otero Glorie
Astigarragako Berdintasun eta Herritarren Partaidetzarako Zinegotzia
Bildu Taldea

2. SARRERA

I BERDINTASUN PLANAK ZER SUPOSATU ZUEN

Astigarragako Emakume eta Gizonen arteko I. Berdintasun Plana 2010-2013, esku hartze tresna bat izan zen, eta udal arloan sexuen arteko berdintasuna lortzeko bidean aurrerapausu garrantzitsuak emateko oinarri.

Planaren amaierak, 2013an, momentu berri baten hasiera suposatzen zuen non lehenengo planaren balioztatzea eta II Berdintasunerako Planaren diagnostikoa eta lantzea abian jarri. Bertan emakume eta gizonen arteko gaurko egoerari buruzko hausnarketa, gauzatutako aldaketak eta etorkizunerako erronkak aztertzeke esparru berriak ireki ziren.

I. Planak iraun zuen epean, nabarmen bultzatu zen Astigarragako emakume eta gizonen arteko berdintasuna.

Zehatzki, alde batetik, BERDINTASUNERAKO UDAL EGITURAK sortu edo/eta sendotu egin ziren.

-Herritar Partaidetza eta Berdintasun Komisio baten sorrera, talde politiko desberdinen parte hartzearekin eta Herritarren Partaidetza eta Berdintasun zinegotzi batekin. Aurretik, berdintasuna Gizarte Zerbitzuetako komisiotik kudeatzen zen. Berdintasun sailak berezko aurrekontua dauka.

-Berdintasun Batzorde baten sorrera, 2011ko urtarrilatik aurrera, berezko udal aurrekontua duena bere dinamizaziorako eta aldizka maila politiko, tekniko eta elkarteetako pertsonen partaidetza jasotzen duena, Berdintasun Planean jasotako jardueren plangintza egin eta abian jarri ahal izateko.

Bestalde, nabarmen hobetu da EMAKUMEEN PARTAIDETZA MAILA POLITIKOAN ETA ELKARTEGINTZAN.

-Gaur egun, korporazioa 5 emakume eta 6 gizonek osatzen dute.

-2013aren hasieran emakume elkarte bat, "HARITUZ. Astigarragako Emakume eta Gizonen Arteko Berdintasun Eskola" sortu zen, sortze eta laguntze prozesu bizi baten ondorioz. Gaur egun 30 kide inguru biltzen ditu, 22 emakume eta 8 gizon, eta herriko gainontzeko emakumeei sarrarazteko gaitasun handia dauka. Bere sustapenerako udal aurrekontua izan du. Aurretik Astigarragan ez zegoen emakumezkoen elkarterik, aurreko elkarte desagertu egin zen eta.

Azkenik, Udaletxean bertan, BERDINTASUNA ZEHARKATZEKO eta gizarte esku hartzean GENERO-IKUSPEGIA erabiltzeko PROZESUAK hastea lortu da.

-2012-2013an zehar, I Berdintasunerako Udal Planaren barne, HEZKIDETZA GAIAREN INGURUAN BERARIAZKO DIAGNOSIA ETA JARDUERA PLANA burutu zen udalerrian dagoen hezkuntza zentru bakarrean, Arantzazuko Ama Ikastola.

I BERDINTASUN PLANAREN EBALUAKETAREN ONDORIOAK

I Planean bildutako jardueren betetze mailari buruz

I Plana, zortzi arlotan zegoen egituratua honako lau ardatzekin arlo bakoitzean: mainstreaming, ahalduntzea, uztartzea eta emakumeen aurkako indarkeria; baita jarduera bakoitza betetzeko epeak, arduradunak eta neurketa egiteko kontutan hartu beharreko aldagaiak jasotzen zituen. Hala ere, ebaluaketa egiteko garaian, dauden egiturazko zailtasunak ikusi ahal izan ditugu, neurri handi batean jardueren gauzatzea eragotzi dutenak. Arlo batzuetan, jarduera batzuk ez dira gauzatu edo ez da bideragarritzat jo gauzatzea. Hau, Lana eta Gizarte Barneratze arlotan gertatu da batez ere. Kultura arloan, I Planean agertzen ziren helburuak ez zetozen bat azken urteetan antzemandako beharrekin. Kirolean, sexuka bereizitako daturik ez izatean, ezin izan dira emakumeen berariazko beharrak ezagutu, ezta euren gogobetetze maila ere.

I Planaren ezagutza eta hedatze mailari buruz

Jabetu garen ondorioen artean, lehenengotariko bat izan da I Planaren edukien ezagutza falta, bai udal teknikari, politikari zein herritar eta elkarte mugimenduen aldetik, nahiz eta Plana idatzi ondoren hedatze lanak egin ziren. Horregatik, II Planaren lantze prozesu honetan, funtseskoa izanen da aipatutako eragileen inplikazioa diseinu eta idazte prozesu parte hartzailean. Hala ere, ezarritako helburuekiko eta urteko ebaluaketa jarraiak proposatzeko arlo bakoitzarekin arituko da. Herritarrak eta elkarte mugimeduak ere Plana gauzatzearen parte sentitu beharko dira eta, behar izanez gero, helburu eta jarduerak, beraien behar eta itxaropenetara egokitu. Aldiz, esan beharra dago nahiz eta politikari zein teknikariak Plangintzan jasotako eduki eta helburuak ez ezagutu, herritarrak lorpen ugari antzeman eta balioetsi dituztela: Harituz, zine foruma bezalako jarduerak, eta Azaroak 25 edo Martxoaren 8aren inguruan berariazko gairerrendak, etab...

Berdintasun Batzorde eta Zinegotzigoaren erreferentzialitateari dagokionez

Onuragarri sumatzen da, bai Berdintasun Zinegotzigoaren presentzia nola Berdintasun Batzordetik zein Komisiotik egindako koordinazioa, batez ere lehentasunez esku-hartzeko arloak hautatuak izan ziren "Hezkuntza" eta "Emakumeen Aurkako Indarkeriari" dagokienez. Hala ere, Berdintasun Arloak izan beharko lukeen erreferentzialitate gabezia antzematen da.

Zentzu honetan, Plan berria lantzeari begira, gunea hau bermatzen jarraitu beharko litzateke, bertan udal arlo desberdinen eta gizarte eragileen parte hartzea sustatuz. Erreferentzia amankomun bat oinarri izanik, arlo honetatik bultzatuta abian jartzen diren jarduera eta ekintza guztiak jaso, eta beste arlo batzuekin nahiz udalerriko gizarte eragileekin koordinazioan lan egin beharko litzateke. Hala ere, ebaluaketa prozesuan parte hartu dutenen eskaera jasotzen da estrategia pedagogikoetan sakontzeko, berdintasunaren inguruan mezuak zabaltzeko orduan, biztanleriak era baikorrean jaso eta beharrezkotzat jo ditzan eta, bereziki, erresistentzia nabarmenak erakusten dituzten gizataldeak.

Herritarren inplikazioa eta parte hartzeari dagokionez

Nahiz eta herritarren partaidetza udal jarduera guztietan erronka bat den denontzat, Berdintasunaren arloan, partaidetza hau aldi berean sentsibilizazioa eta formakuntzaren ardatz estrategikoa eratzen da, emakume eta gizonen arteko berdintasunaren kontuetan herritarren kezka eta beharretara hurbilduko gaituena. Honela, Berdintasun Plan berriak herritarren partaidetza zeharkako helburu gisa hartu beharko luke. Antzeman da, baita ere, gizonezkoen inplikazio falta berdintasunari lotutako jarduera eta esparruetan, beraz, joera hau gainditzeko ekintzak gauzatu beharko dira. Era berean, migratuak diren pertsonen osatutako taldeetan eta taldeetatik berdintasuna bultzatzeko berriazko beharrak kontutan hartu eta amankomuneko lan dinamikak sortzeko ahaleginak sendotu egingo dira.

Jasangarritasuna, zaintzak, erantzunkidetzak eta uztartzeari dagokionez

Bai I Planaren ebaluaketa prozesua zein II Planaren lantzea, gizarte berrikuntza eta garapen jasangarriaren udal estrategietara egokitzen dira, biak egungo korporazioak hasitako herritarren partaidetza prozesuak eta udalerrian aurretik txertatutako Agenda XXI egitasmoak bultzaturik. Aipatutako jasangarritasuna eta partaidetza parekidea, zaintzen esparrura eramane behar da baita ere, hau Astigarragan desberdintasun egoera iraunkorretaz hitz egitean, gehien aipatu direnen artean dago eta. Orduz, zerbitzu eta udal eskaintzak uztartze irizpideak izan behar dituzte kontutan, herritar guztiak aukera berdinekin parte hartu dezaten erretuz. Era berean, zaintzaileen zaintza, formakuntza eta ahalduzko lanean jarraitzea gomendatzen da, baita udalerriko familiei zuzendutako sentsibilizazio zereginetan, batez ere erantzunkidetzaren arloan.

Gaztediari dagokionez

Bereziki deitzen du arreta ebaluaketa prozesua lantzean aldi askotan aipatu dela gaztedia kezka iturri bezala berdintasunari dagokionean, azken urteotan ohikoa zen modutik alderatuz, non harreman zuzenagoak lortzeko joera baten abangoardia bezala aipatzen zen. Nagusia den maskulinitasunetik haratago erreferente eza, berau menderatze balioetan oinarritua, eta emakumezkoen erreferenteen ikusezintasuna komunikabideak erakusten dizkigutenetatik haratago, non irudi estereotipatuak eta sinplistik besterik ikusten diren, nabarmen kezkatzen ditu elkarriketatutako gehiengoak. Hala ere, ezinegon handia sortzen du emakumeen aurkako indarkeriaren areagotzeak bikote gazteen artean zeintzuk, askotan, harreman afektibotan jarrera kontrolatzaile, jelskor eta dependienteak hartzen dituzten. Funtzeskotzat hartzen da lanean jarraitzea Astigarragako gaztediarekin, orain arte egin den moduan, bai esparru formaletan (Ikastola), zein ez formaletan (Gaztelekua, Gazte Asanblada, etab.) emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioan. Era berean,

homofobia modu berriak eta sexismoaren fribolizazio eta naturalizatorako joera, parte hartze erronka berri bezela aipatu dira.

Hezkuntzari dagokionez

Oraindik ere hezkuntzak jarraitzen du lehentasunezko parte hartze esparru izaten, berdintasun arloan egindako lanaren ahaleginik nabarmenena esparru honetan zentratu da, alegia. Funtseskoena Arantzazuko Ama ikastolarekin egindako hezkidetzaren diagnostia eta ikasle, irakasle eta gurasoei zuzendutako formakuntza eta sentsibilizazio saioen diseinua eta gauzatzea izan da.

Egindako lanaren ondorioz, hezkuntza komunitateko eragile guztiekin baterako formakuntza eta sentsibilizazio lanetan jarraitzeko beharra jasotzen da: ikaslegoa, irakaslegoa, irakasle ez den pertsonala eta familiak, azken hauek izanik formakuntza eta laguntza behar haundiago batekin somatzen direnak, baita berdintasunaren gaitetan ere.

Udalbatzari dagokionez

Kontutan hartuz Udala ez dela herritarren ordezkatzeko organoa soilik izan behar, haien artean ere eredu berri funtzionamendu erakundea baizik, I Planaren garapenaren urteetan teknikari zein politikariei zuzenduriko berdintasun arloan hasitako formakuntzarekin sakontzea proposatzen da. Berdintasunarekiko erakutsitako konpromezua onuragarri balioesten den arren, erronka zahar eta berriei aurre egiteko beharra sortzen da, hizkera barneratzailea eta ez sexistaren erabilpena, euskaraz zein erdaraz, eta maila idatzian, ahozkoan eta ikonikoan edota zeharkatasuna bultzatzea. Era berean, udaletxean bertan uztartze neurriak ezartzera zuzenduriko proposamenak jasotzen dira.

Udalerrian emakumeen bisibilizazioari dagokionez

Hainbat alditan aipatu da ohituraren zama eta askotan honek jokatzen duen papera rola bizirik-jarraitzearen lejitimazioan. Erljioa, lurraren munduari lotutako ohiko eredu ekonomikoak, edo sagardotegien inguruan sortu eta eratutako gunek eta harremanak, gune hauek oraindik ere gizonetzkoenak edo maskulinizatuak bezala hartuak, lehengo belaunaldietatik hasita gaur egungotara iristen diren desberdintutako estereotipoen errotzean indarra izan dezaketen eragileak izan daitezke.

Unibertso hauen ugalketa eta udalerraren nortasunarekin hain lotuta egoteak Astigarragako emakumeen lana eta ekarpenak ikustarazteko zailtasun ugari sortzen ditu, bai historikoki, zein gaur egun. ("Seme kuttunak", "txotx", etab...). Elkar ezagutzea eta esker ona, eman beharreko nahitaezko pausuak dira tratu zein herriko emakumezko eta gizonetzkoen aukera berdintasunean oinarritutako bizikidetzaren oinarriak ezartzeko.

BERDINTASUN PLANAK PROPOSATZEN DUENA/METODOLOGIA

Astigarragako emakume eta gizonen arteko Berdintasunerako II Plan honek, gaur egun herriko emakumeek dituzten beharrei eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna lortzeko erronkei buruzko hausnarketa eta azterketa prozesu parte hartzaile baten ondorio da.

Azken urte hauetan aurrerapen ugari izan dira berdintasunaren esparruan, ez bakarrik emakumeen bizi kalitatea hobetzea lortzeko, baizik eta, batez ere, hiritartasuna osatzen duten gizon eta emakumeen arteko berdintasun erreala lortzeko eskubide eta betebeharrei dagokienez, bai esparru publikoan zein pribatuan.

Hala ere, emakumeen aurka eragindako indarkeriaren izaera estrukturalaren onarpena eta premiazko esku-hartzearen beharra, azken hamarkadetako berdintasunaren aldeko borrokan izandako lorpen haundienetariko bat izan da, ez soilik arlo judizialean baizik eta hezkuntzan, formakuntzan eta sexu arrazoiengatik muturreko bereizkeria adierazpen mota honekiko sentsibilizazioan.

Estereotipo sexistak gainditzearen egindako lana, parte hartze esparru parekideen sorrera, lehen eta bigarren hezkuntzan hezkidetzaren oinarrien onarpena, hedapena eta sakontzea, toki administrazioaren berdintasunarekiko eta emakumeak ikustarazteko konpromezuak, gizonen eta emakumeen arteko berdintasun erreala lortzeko daukagun bide luzean eman diren aurrerapausu beharrezkoak eta iraunkorrak dira. Baita Astigarragako udalerrian ere.

Kontua da 2014ean eta krisi ekonomiko baten testuinguruan, gizonen eta emakumeen arteko berdintasunak erronka berriak eta konpondu gabeko kontu zaharrak dituela aurre egiteko. Berdintasun Planak eta, zehatzki, Astigarragako gizonen eta emakumeen arteko II Berdintasun Plan hau,

udalerrian dauden desberdintasun egoera errealeta jabetzeko erabilgarritasun handiko tresna da, baita ere, berdintasuna sustatzeko jarduerak planifikatzeko, udal arlo guztiak koordinatu, herritarrak inplikatu eta haien parte hartzea bultzatzeko informazioa, formakuntza, eta sentsibilizazio jarduerak aurrera eramateko. Baita, abian jarritako jarduera eta etapa bakoitzaren ebaluaketa egiteko ere.

II Berdintasun Plana lantzeko, arloz arlo aztertu dugu informazioa, baita aurreko planaren ebaluaketa prozesuan eskuratutako ondorioak. Hala ere, Astigarragako herritarrei eta udalbatzari dagokien datu kuantitatiboak aztertu ditugu.

Era berean, arreta berezia eskeini diogu diagnostiko honen izaera parte hartzaileari. Horretarako, alde batetik banakako elkarrizketak egin ditugu arlo bakoitzeko teknikari eta politikariek, eta bestetik eztabaida taldeak elkarte eta herritarrekin eta saio parte hartzaileak politikariek.

Teknikari, politikari, elkarte eta herritarren artean, guztira 60 pertsona inguru hartu dute parte gogotsu ebaluaketa-diagnostikoan. Honen ondorioz landu da II Berdintasun Plan honen prestatze eta idazketa.

3. PRINTZIPIO ESTRATEGIKOAK

Berdintasun Planaren printzipio estrategikoak, edukinen definizioaren erizpideak zehazten ditu, baita ere, parte hartzen duten agente desberdinen funtzionamendu arauak.

Printzipio estrategikoak 10 dira:

- Astigarragako Udala, bere jarduera guztietan genero berdintasun printzipioaren erabateko garapena bermatuko duen organo eragile eratu.
- Berdintasuna, errespetua eta indarkeri eza balioak sustatu, adin guztietako pertsonen garapenerako beharrezkoak diren einean.
- Emakumeen aurkako edozein indarkeri mota ezabatu.
- Astigarragako elkarte, talde eta herritar guztiei lagundu, euren ekintza arlotan genero ikuspegia barneratu dezaten.
- Astigarragako emakumeak arlo desberdinetan egindako ekarpenak ikustarazi.
- Kirola sustatu ongizate pertsonalaren betegarri den einean, eta kirol modalitate desberdinetan neska eta emakumeen parte hartzea bultzatu.
- Gizon eta emakumeen artean erantzunkidetzeta eta familiako eta laneko bizitzaren uztartzeari laguntzeko neurriak ezarri.
- Emakumeen erabateko osasuna aintzatestea beraien bizi-zikloaren etapa desberdinetan.

- ▶ Bazterketa egoera edo arriskuan dauden bereizkeria anizkoitza jasaten duten emakumeen bizi baldintzak hobetu.
- ▶ Astigarraga garapen jasangarri eta hirigintza orekatu eredu batera bultzatu esparru guztietan, genero ikuspegiarekin.

4. DATU DEMOGRAFIKOAK

Astigarragako **gaur egungo biztanleria** -2014eko urria- 5724 pertsona, 2796 emakume (%49) eta 2928 gizon (%51)

Azken lau urteetako bilakaera oso adierazgarria izan da. (ia 1000 pertsonako gehitzearekin), eskualdeko sei udalerrietako nabarmenena.

Erroldatutako biztanleria guztia hartuz, 334 pertsona (%6) **beste herrialde batzuetatik** etorriak dira, 153 emakume eta 181 gizon.

Emakume etorkinen presentzia gizonezkoena baino arinki bajuagoa da (guztiaren %46)

Bi sexuetan, bi herrialde nabarmentzen dira, Portugal eta Errumania, 77 eta 107 pertsonekin, hurrenez hurren.

Emakumezkoen presentzia nabarmenki bajuagoa da gizonezkoena baino, bereziki Portugaleko kasuan, 28 emakume eta 49 gizon. Bestalde, Errumaniatik datozen emakumeak 44 dira eta gizonak 63.

“Donostiako Mendebaldeko arlo Sozio Ekonomiko eta Lan Merkatuaren arloko diagnostikoaren” arabera, 2012an landua, eskualde mailan eta 2011an zehar, Astigarraga izan da hazkunde demografiko nagusiena izan duen udalerrria (%32,3).

Donostialdea-Mendebaldeko errealitatearen barruan, tasa handienak, bai **jaiotza-tasa** (%14,9) zein **ugalkortasuna**, Astigarragan aurkitzen ditugu (56,7 jaiotza, ama izateko adinean dauden 1000 emakumeko)

Beste udalerrri batzuekin alderatuz, Astigarragak portaera guztiz desberdinak erakusten ditu, izan ere biztanleriaren %20a soilik da **Gipuzkuko lurraldetik** kanpo jaioa. Hala ere, Astigarragako biztanleriako % 77,1 beste udalerrri batean da jaioa. Esan dezakegu beraz, biztanleri hau ondoko herrietatik etorria dela, batez ere Donostialdeako herrietatik. Ez dago desberdintasunik emakume eta gizonen artean.

5. BERDINTASUN PLANAREN EGITURA

Astigarragako II Berdintasun Plana esku hartze tresna bat da, udal arloan sexuen arteko berdintasunaren inguruan aurrera egiteko eman beharreko pausuak zeintzuk diren adierazten duena.

Lau urteko iraupena du, 2015etik 2018ra, eta EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Planak ezarritako esku hartze ildo eta jarraibideak bete ditu.

Jarduera arloak zortzi dira:

- ✂ EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO GOBERNANTZA
- ✂ HIRIGINTZA, ETXEBIZITZA ETA INGURUMENA
- ✂ KULTURA
- ✂ GAZTEDIA ETA KIROLA
- ✂ OSASUNA, GIZARTE ONGIZATEA ETA INMIGRAZIOA
- ✂ HEZKUNTZA
- ✂ GIZARTE PARTAIDETZA
- ✂ ENPLEGUA

Bestalde, berdintasunaren inguruan esku hartze ardatzak hiru dira:

- 1.ARDATZA- BALIOAK ALDATZEA ETA EMAKUMEAK AHALDUNTZEA
- 2. ARDATZA - GIZARTE ANTOLAKUNTZA ERANTZUKIDEA
- 3.ARDATZA- EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA DESAGERRARAZTEA

Aipatutako arlo bakoitzean, "Emakumeen eta gizonen berdintasunerako gobernantza" salbu, -eta dagokien ardatz estrategikoaren barne- berariazko helburuak, jarduerak, arlo aduradunak eta adierazgarriak aurkitu ditzakegu.

Esan beharra dago, arlo guztiak ez dituztela EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Planaren hiru ardatzak biltzen.

Arlo batzuetan ardatz guztiak ez sartzearen arrazoiak hauek dira, lehenik, abiapuntua izan da Plan hau tresna erabilgarria eta eragingarria behar duela izan, Astigarragako Udalak erabili eta ezarri ahal izateko; bigarrenik, proposatu diren helburuak eta dagokien neurriak ezartzeko, udalerraren errealitatea, Udalaren gaur egungo eraketa eta antolakuntza, eta nabarmendutako emaitza eta premiak izan direla kontutan.

Azkenik, atal bat sartu da II Planaren kudeaketarako berdintasun egituren deskribapenarekin, hau da, abian jartzeko, jarraipena eta ebaluaketa egiteko sistema.

Jardueren idazketari arreta berezia eskeini zaio, gerorako ebaluaketa eta jarraipena erreztuko duen zehaztasun maila handiagoa lortzearren. Izan ere, ebaluaketak protagonismo nabarmena dauka Plan honetan, urtero osatzen duten jardueren ebaluaketa egitea delako helburua, betetze maila neurtu eta beharrezkoa ikusiz gero, esku hartu ahal lizateko.

Amaitzeko, Plan honetako azken nobedade bat aipatu nahi genuke, berdintasuna lortzeko, bizikidetzan eta berdintasunean parte hartzea bermatuko duten trebatze eta formakuntzara zuzendutako berariazko jarduerak proposatu dira, gizon eta emakume, herritar guztien inplikazioa indartu nahian.

6. JARDUERA ARLOAK

1. ARLOA - EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO GOBERNANTZA

Toki-administrazioan berdintasunaren inguruan esku hartzearen garrantziak alderdi bikoitza dauka: alde batetik, informazioa eta zerbitzuak eskeintzea eta bestetik, herriaren irudia proiektatzea. Bi funtzio hauek kontutan izanik, gizonen eta emakumeen arteko berdintasunak lan jardueretan ez ezik, toki-administrazioaren antolakuntzan eta funtzionamenduan ere nabarmena eta eredugarria behar du izan.

Bigarren Plan honen asmoa, jada hasitako bilakaeretan sakondu eta jarraitzea da, formakuntza beharrak egungo errealitatera egokituz, eta administrazioaren gaitasuna hobetuz herritarren arteko desberdintasun egoerak antzeman eta bertan esku hartzeko.

Gaur egun, udalbatza bost emakumek eta sei gizonek osatzen dute.

Udaletxeko langilegoari buruz -egun eta osotasunean- pertsonal funtzionaria da (ez dago bitartekotasunik). Udaletxean lan egiten duten persona teknikarien artean, bakarrik lau dira emakumezkoak.

Nahiz eta administrazioaren eremuan aurrerapen ugari egin diren, oraindik ere berdintasunaren inguruan hainbat erronka aurkitzen ditugu, baita Astigarragan ere: udal lan esparruen sexu-bereizketa (arlotan oso feminizatuak daude, hala nola, Gizarte Zerbitzuak, eta beste batzuk oso maskulinizatuak, adibidez, Obrak eta Zerbitzuak), sexuka bereizi gabe dauden udalerriko datu estatistiko guztiak, etab...

Plan honen diseinuak pertsonal politiko eta teknikoaren berdintasunarekiko konprometua neurri zehatzetan bilakatzeko helburua dauka, gizon eta emakumeen arteko berdintasuna benetan zeharkako gaia eta guztion ardura izan dadin.

Jarraian, berriazko helburuak, jarduerak, gauzatze urtea, arlo arduradunak eta arloaren adierazleak biltzen dira.

1.1 Astigarragako Udaletxean genero-ikuspegia txertatzeko lanean jarraitu

1.1.1. Astigarragako Gizonen eta Emakumeen arteko II Berdintasun Planaren edukiak eta erakundeek honekiko eta bere betetzearen alde daukaten ageriko atxikimendua herritarrei ezagutzera eman. 2015

1.1.2. Berdintasun Planaren jarduerak abian daudenean ezagutzera eman, udal Webgunea eta sare sozialen bitartez. 2015-2018

1.1.3. Herritarren eta Udalaren aurrean Alkatetzak sexu berdintasunarekiko konpromezu nabarmenagoa agertu, Berdintasun Batzordean parte hartuz. 2015.

1.1.4. Berdintasun arloa Gizarte Zerbitzuetako arlotik banandu, era organikoan zein aurrekontuei dagokienez. 2015

1.1.5. 2014ean Berdintasun Arloan Berdintasun Teknikari bat sartu, gai honetako graduondoko formakuntzarekin eta egun Astigarragako Udaletxean Gizarte Langile moduan duen lanaldia osatzeko lanaldi partzialarekin.

1.1.5. Bis. Arlo arteko Komisio bat sortu, arlo desberdinetako udal teknikariez osatua, aldizkako bilerak eginez jarduera desberdinen planifikazioaren elkar lana bermatzeko, eta Berdintasun Plan honen betetze mailaren jarraipena egin ahal izateko. 2015

1.1.6. Berdintasun Batzordearen funtzionamendua ezarriko duen araudi bat sortu, berdintasun gaietan tokiko organo parte hartzaile gisa, politikarien, teknikarien eta gizartearen partaidetzarekin. 2015.

1.1.7. Berdintasun Batzordean herriko elkarte eta taldeen partaidetza sustatu, eta egitura hau ikuspegi berri honekin finkatu. 2015

1.1.8. Udal Berdintasun Ordenantza bat idatzi eta ezarri. 2015-2016

1.1.9. Udal diru-laguntzen deialdietan sartutako genero klausulak aztertu eta, dagokien kasutan, hobekuntza proposamenak egin. 2015

1.1.10. Udal obra eta zerbitzuetako lehiaketa publikoak genero ikuspegitik aztertu eta txosten bat burutu, inplikaturak dauden arloak aztertu dezaten. 2015-2016.

1.1.11. Udal aurrekontuetan genero eraginaren azterlan bat egin, ondorioak argitaratu eta aurrekontuen eraginagatik sortu daitezken genero desberdintasunak gainditzeko, hurrengo buru-lanei begira neurri zehatzak ezarri. 2016

1.1.12. Udaletxeko langileak eta Udalbatza osatzen duten pertsonak genero berdintasunaren gaitan bete beharreko formakuntzarekin jarraitu non berdintasuna udal arlo desberdinetan nola aplikatu jasoko den.

1.1.13. Berdintasun batzordea eta Arlo arteko Berdintsun Komisia osatuko duten pertsonen berdintasun gaitan formakuntza eman. 2015-2018

1.1.14. Genero Ikuspuntua barneratzeko formakuntza eta laguntza teknikoak azpikontratatuak enpresa eta erakundeei. (Polikiroldegia, Gaztelekua, beste batzuk) 2015-2018

1.2 Toki-administrazioa, barne funtzionamendua, komunikazio eta formakuntza eredu bihurtu Astigarragako herritarrentzat, gizonen eta emakumeen arteko aukera berdintasunaren aldetik.

1.2.1. Azterlan bat egin toki Administrazioko langileen egoera ezagutzeko, soldata-ezberdintasuna, sexu bereizketa okupazionala, etab... dagoen eta ageriko desberdintasunak antzemanaz gero, ekintza positiboak ezarri. 2016

1.2.2. Behar diren neurriak abian jarri toki administrazioko langileen familiako eta laneko bizitzaren uztartzeari laguntzeko. 2017

1.2.3. Protokolo bat landu, euskaraz zein gazteleraz, hizkera bateratzailea, ez sexista eta ez bazterzailea (ahozkoa, idatzizkoa eta ikonikoa) erabiltzeko tokiko administrazioen barne eta kanpoko komunikazioetan. 2015

1.3 Herritarrei udalerriko gizonen eta emakumeen benetazko egoera ezagutarazi, arlo desberdinetan sexuaren arabera edozein motatako diskriminazioa antzeman eta aurreikusteko helburuarekin, eta esparru desberdinetan emakumeen presentzia ikustarazi.

1.3.1. Arlo desberdinetan erabiltzen diren aplikazio informatikoak aztertu eta beharrezko aldaketak egin pertsonen dagokien udal datu estatistiko guztiak sexuka desagregatu ahal izateko (jardueretan parte hartzea, zerbitzuetako erabiltzaileak, azterlanak, diagnostikoak, etab...) datuak jasotzeko fitxa eredu berdin baten bitartez. 2015

1.3.2. Argitalpenetan eta Udaleko beste erreferentzia batzuetan (historikoak, kulturalak, etab...) emakumeen presentzia eta egindako ekarpenak ezagutaraztea. 2015

ARLO ARDURADUNA:

ALKATETZA

OGASUNA, ONDAREA ETA BERRIKUNTZA

OBRAK ETA ZERBITZUAK

HERRITARREN PARTAIDETZA ETA BERDINTASUNA

PERTSONALA

Adierazleak

- **1. Berdintasun Planaren hedatze maila / garapenerako jarduerak**
- **2. Berdintasun Batzordea-konfigurazio berria-**
- **3. Berdintasun Teknikaria sartua**
- **3bis. Arlo arteko Berdintasun Komisioa-Sortua-**
- **4. Berdintasun Batzordearen araudia-Landua-**
- **5. Berdintasun Batzordea- Konfigurazio berria-**
- **6. Berdintasun Udal Ordenantza-Landua-**
- **7. Lehiaketa publiko aztertuak**
- **8. Formatutako pertsona %, teknikariak, politikariak eta elkarteak diren arabera bereiztuta / baita sexuka ere**
- **9. Parte hartzaileak jasotako formakuntza ordu kopurua**
- **10. Egindako azterlanak**
- **11. Ezarritako uztartze neurriak**
- **12. Hizkera Ez Sexista Protokoloa-Landua-**
- **13. Aztertutako aplikazio informatikoa**
- **14. Datu bilketarako fitxa eredu- Landua-**
- **15. Sexuka bereizitako datuak**
- **16. Erantsitako beste hobekuntza batzuk**

2. ARLOA- HIRIGINTZA, ETXEBIZITZA ETA INGURUMENA

Antza denez, hirigintza alor neutroa da, sarritan aurrekontuen alde handia bereganatzen duena. Hala ere, espazioen kudeaketa ez da batere neutroa eta bere diseinuaren arabera, erabakiko da eskuragarritasun unibertuala dagoen ala ez, herritar guztien segurtasuna edo bulnerabilitatea, espazioetan parte hartzeko gonbitea edo ukazioa, herritar batzuen bisibilizazioa edo ezkutatzea.

Astigarragak 12 kilometro karratu inguruko azalera dauka. Azken lau urte hauetan populazioak goraka egin du 1000 biztanle gehiagorekin gutxi gora behera eta horren ondorioz, zerbitzuak eta azpiegiturak gehitu egin behar izan dira. Era berean, herritarren artean jasagarritasunaren inguruko kezka gero eta handiagoa da eta hirigintzaren diseinuan parte hartzeko eskaera gero eta nabarmenagoa. Gauzak horrela, hirigintzak erronka berriei aurre egin behar die, baita Astigarragan ere.

Herriko gune desberdinen banaketa, sarbidea eta erabilerari buruz emakumeek duten pertzepzioari dagokionez, oraindik ere badira bulnerabilitatearen sentrazioa pizten dien tokiak: Herriaren erdigunetik urruti dauden tokiak, tunelak, industriaguneak eta inguruak, ibilbide estuak eta ez jendetsuak, lurrazpiko aparkalekuak, etab...

Argiztapen urria, ordu jakin batzuetan ematen den zirkulazio eskasa, isolatuta sentitzearen beldurra... hauek dira herrietako emakume askok bizi dituzten errealitateak. II Berdintasun Plan honek eta hirigintza arloak badute gai honekin zerikusirik eta jabetzen dira emakumeen adierazpenak egiteko beharraz eta are gehiago, adierazpen hauek kontutan hartzekoaz, neurrira eta herritar guztientzat egin beharreko hirigintza diseinua eskeini ahal izateko.

Jarraian ardatzak, berriazko helburuak, jarduerak, betetze urtea, arlo arduradunak eta adierazleak biltzen dira:

1. ARDATZA- BALIOAK ALDATZEA ETA EMAKUMEAK AHALDUNTZEA

2.1 Hirigintzan genero ikuspegia sartzen hasi formakuntza eta prozesu parte hartzaileen bitartez

2.1.1 Kargu publiko eta teknikariak prestatu, etengabe kontutan har ditzaten emakumeen beharrak, hirigintza hobetu, diseinatu eta plangintza lantzen dutenean. 2016

2.1.2 Hirigintza diseinatu eta plangintza egiterakoan, emakumeen eta biltzen dituzten elkarteen partaidetza sustatu. 2017

2.2 Hiri elementuen bitartez emakumezkoen eta gizonezkoen eskaintzen zaien esker ona orekatu

2.2.1 Astigarragako kale, enparantza eta eraikuntzen izenei buruzko azterlan bat egin eta aldaketak egiteko aukera baloratu (toponimoak), emakumezkoen izenak ezartzeko, hauek herriarentzat egin dituzten ekarpen sozialak, kulturalak edo ekonomikoak ikusarazteko. 2015

2.3 Agenda XXIean genero ikuspegia sartzen hasi formakuntza eta prozesu-jarduerak txertatuz

2.3.1 Agenda XXIean emakumeen partaidetza sustatu alde aurreko formakuntzaren bitartez. 2016

2.3.2 Berdintasun Plana Agenda XXIarekin lotu, bertan jarduera zehatzak bilduz, gizarte arloan genero berdintasuna zeharkako ardatza delako. 2015-2018

2.ARDATZA- GIZARTE ANTOLAKUNTZA ERANTZUKIDEA

2.4 Herritar guztien berdintasuna bermatu- persona zaintzaileak barne- herrian mugitu eta udal eraikuntzatarara sarbidea izateko.

2.4.1 Herritarren artean ikerketa/galdeketa bat egin udalerriko hirigintzak, kale eta parkeen ekipamenduak, etab. dauzkaten gabeziak eta beharrak ezagutzeko, gehien bat haur eta gazte populazioari eta zaharrei begira. 2016

2.4.2. Arkitektura-oztopoak ezabatzen jarraitu, haien artean, oinezkoen mugikortasunari eta segurtasunari lehentasuna emateko -zaintzen duten pertsonen, adibidez-, ibilgailuen aurrean, oinezkoentzako pasabideen resaltoa sustatuz. 2015-2018


2.5 Garraio publikoan familiako eta laneko bizitzaren uztartzea errezteko neurriak ezarri

2.5.1 Garraio kolektiboko zerbitzuen funtzionamendua eta kalitatea aztertu (minibusak, taxi-busa, urbileko trenak, etab...) mendeko pertsonen eta hauen laguntzaileei mugikortasuna errezteko, eta ibilgailurik ez duten emakume eta gizonei aukera eskeintzeko, bereziki hirigunetik urruti bizi diren baserrietako pertsonen eta inguruko herriekin lotura hobetuz lortzeko. 2015

2.5.2 Gaurko garraio publikoan segurtasuna eta erosotasuna hobetuko duten neurriak ezarri. 2016

2.6 Ingurunean laneko eta norberaren bizitzaren uztartzeari laguntzeko neurriak ezarri

2.6.1 Udalerrian jolas gune, ibilaldi eta berdeguneak sustatzen jarraitu. 2015-2018

 3.ARDATZA- EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA
DESAGERRARAZTEA

2.7 Udalerriko guneen osotasunean emakumeen segurtasuna gehitu eta bulnerabilitate egoera murriztu.

2.7.1. Segurtasun falta sumatzen den herriko guneen mapa bat egin emakumeak eta hauek biltzen dituzten elkarteekin parte hartze prozesu bat eginez. 2015

2.7.2 Ezagutzen diren segurtasun urriko guneetan esku hartu. 2015

ARLO ARDURADUNA:

HIRIGINTZA, ETXEBIZITZA ETA INGURUNEA
OBRAK ETA ZERBITZUAK
OGASUNA, ONDAREA ETA BERRIKUNTZA
HERRITARREN PARTAIDETZA ETA BERDINTASUNA

Adierazleak

- **1. Formatutako pertsona %, teknikariak, politikariak eta elkarteak diren arabera bereiztuta / baita sexuka ere**
- **2. Parte hartzaileak jasotako formakuntza ordu kopurua**
- **3. Egindako azterlanak**
- **4. Tokiko mapan gehitutako emakumeen izenak**
- **5. Erantsitako hobekuntzak**
- **6. Hiri diseinuarekin erlazionatutako uztartzeko oztupoak identifikatuak eta indargabetuak**
- **7. Sortutako jolas gune, ibilbide eta berdegune berriak.**
- **8. Ezagututako puntu hautemangarriak eta indargabetzeko egindako esku hartzeak**

3.ARLOA- KULTURA

Kultura

Guztiok ezagutzen dugu kulturak duen balore eratzailea adierazpen mota ezberdinak transmititzeko eta gizon eta emakumeen belaunaldien sustapen sortzaileak kanalizatzeko momentuan. Hala ere, kulturak betetzen duen funtzio hau baino haratago bada oso garrantzitsua den beste dimentsio bat: kulturak berak bere inguruan sortzen dituen elkarbizitzarako eta harremanak sortzeko espazioak, non gizartean ematen diren harreman eta elkarbizitza mota askotan erreproduzitu egiten den.

Kulturak duen gaitasun eratzaileak eta baloreak eta sinesmenak transmititzeko ahalmenak ezinbestekoa egiten du berdintasunean esku hartzeko beharra.

Kultura arlotik jasotako informazioa kontutan harturik, sumatzen dugu emakumezkoak direla gehien bat jarduera eta tailer kulturaletan parte hartzen dutenak. Era berean, emakumeak dira liburutegiko zerbitzuak neurri handiago batean erabiltzen dituztenak, beraiek izanik produktu kulturalen kontsumitzaile eta ikusle nagusiak. Bigarren Plan honek, lehenengoarekin hasitako lanari jarraituz, joera honetan eragina izan nahi du, ez bakarrik emakumeak sortutako lanak edota emakumeen errealitateak aztertzen dituzten lanak ikusarazi eta balioan ezarriz, merezi duten tokia eta esker ona eskeiniz, baizik eta gizona koei aisiari eta giza harremanei lotutako kultura jardueratan parte hartzera gonbidatuz.

Jarraian ardatzak, berariazko helburuak, jarduerak, betetze urtea, arlo arduradunak eta adierazleak biltzen dira:

1. ARDATZA- BALIOAK ALDATZEA ETA EMAKUMEAK AHALDUNTZEA

3.1 Sortzaile eta arte eta kultura ekoizle diren emakumeen lana bultzatu

3.1.1. Liburutegiaren fondoa emakumeek egindako literaturarekin eta emakumeei eta hauen egoerari buruzko azterlanekin eta ekarpenekin hornitzen jarraitu. 2015-2018

3.1.2. Irakurketa-gidak sortu, emakumeek egindako lanak eta hauen errealitatea islatzen dituzten obrak zehaztuz, baita eskura daudenak edota iritxi berriak. 2015

3.1.3. Martxoak 8ko eta Azaroak 25eko egunekin lotutako egitarau bereziak mantendu (erakusketak, hitzaldiak, aurkezpenak), emakumeek egindako lan eta arte adierazpenekin. 2015-2018

3.1.4. Kultur jardueri buruzko epaimahaietan zenbait pertsona daudenean, gizonezkoen eta emakumezkoen presentzia neurriduna lortzea. 2015-2018

3.1.5. Kulturarekin zerikusia duten erabakietan emakumeen presentzia eta partaidetza bermatu. 2015-2018

3.1.6. Kultura arloan udalerriko emakume nabarmenen zerrenda bat osatu eta zabaldu, alaba kuttun izendagarri edo haien izenak herriko kaleak izendatzeko erabili ahal izateko. 2015

3.2 Kulturak harremanetarako daukan izaera sustatu, non gizonen eta emakumeen arteko topaketa, elkarbizitza eta berdintasunezko parte hartzea laguntzen den.

3.2.1. Kultur jardueratako parte hartze datuak bildu (udal arloak ezarritako datu bilketarako fitxa ereduaren arabera), sexuen arabera bereizirik, eta urteroko ebaluaketak egitean publikoaren profila zehaztuz. Batez ere, sexua eta adina. 2015

3.2.2. Aniztasun kulturala eta migratzaileak diren pertsonak baliabide eta kultur guneen erabilera sustatzeko egin daitezkeen jarduerak aztertu. 2016

3.2.3. Urteroko programazioarekin jarraitu Gaztedia arloa, Gaztelekua eta Gazte Asanbladarekin koordinatuz, kulturarekin bat datorren gazteen arratsalde-gaueko aisiari arreta eskeiniz: zinemagintza, bakarrizketak, antzerkia, film laburrak, etab... Gaitegi eta edukietan genero ikuspegia barneratuz. 2015-2018

2. ARDATZA - GIZARTE ANTOLAKUNTZA ERANTZUKIDEA

3.3. Kultura jardueratan famili ardura duten emakume eta gizonen partaidetza erreztu.

3.3.1. Familiako eta laneko bizitzaren uztartzeari laguntzeko, familiei zuzendutako jarduera kulturalak burutu batez ere asteburu eta oporraldietan. 2015-2018

3.3.2. Jardueren ordutegiaren plangintza mantendu familien uztartzeko beharra kontutan hartuz, eta /edo ludoteka zerbitzua eskeiniz hauek irauten duten bitartean. 2015-2018

ARLO ARDURADUNA

KULTURA ETA EUSKARA

GAZTEDIA, JAIK ETA KIROLA

HERRITARREN PARTAIDETZA ETA BERDINTASUNA

Adierazleak

- **1. Eskuratutako fondo bibliografikoak**
- **2. Irakurketa gida landuak**
- **3. Programazio landuak**
- **4. Erantsitako hobekuntzak**
- **5. Emakume zerrenda landua**
- **6. Sexuka bereizitako datuak**
- **7. Ezarritako uztartze neurriak**

4.ARLOA- GAZTEDIA ETA KIROLA

Gaztedia

Gaztedia arlo gisa sartzeari gazteen eta berdintasunaren arteko azken datuek eragindako kezken ondorioa da, non gazteen artean genero indarkeriak nabarmenki gora egin duela ondorioztatzen den. Honetaz gain, diagnosi prozesuan parte hartu duten pertsonen irakurketatik gazteekin berdintasun gaiak lantzea beharrezkoa dela ikusi da, etorkizun parekideago bat bermatzeari begira.

Kontsumoari lotutako gaueko aisiaren aurrean alternatibarik ez dago, feminitate eta maskulinitate eredu bakarrak inposatzen dira beste batzuen gainean estereotipoen eraginez, errealitatetik oso urrun dauden eredu estetiko batzuen atzetik gehien bat neska gazteek pairatzen dituzten presioak, menpekotasunean, jelskortasunean eta kontrolean oinarritzen diren harreman afektiboak, cyberbullying-a eta sare sozialetan sortzen diren ahuldurak, homofobia, norbanakotasuna... Astigarragako Gaztelekuko persona hezitzaileak antzemandako arazo hauetako bakoitzarentzako erantzunak apustu integrala egin behar du, errespetuan eta berdintasunean oinarritutako harremanen alde, eta Plan honek helburu horrekin ekintza batzuk martxan jarri nahi ditu.

Astigarragan gazte askok neurri handi batean neska eta mutilen arteko komunikazioa ahalbideratzen duen esparrurik ez dutela esan dezakegu. Gazte Lokaletik bizikidetzara indartzeko asmoz hainbat ekintza burutzen dira urtean zehar. II Berdintasun Planak aurretik hasia den lanarekin jarraitu eta gizarte aldaketa lortzeko beharrezkoa den gaitan sakontzeko helburua eta konprometua dauzka, neska eta mutil gazteek askeago, parte hartzaileago eta parekideago izan daitezen.

Kirola

Kirol jarduerak eta berdintasunari buruz teknikariek, profesionaliek, kirolariek edota hezitzaileek hitz egiten den guztietan gehien errepikatzen den kezka kirolarekin harremandutako balore ez-lehiakorren galera izaten da. Arrakastarekin lotutako kirol zehatz batzuk eta horietan ospea duten kirolarien gehiegizko presentziak gainontzeko kirol jarduerak, alegia, lehiakorrak ez direnak, aisiarekin, talde jolasekin edota ongizatearekin harremana dutenak hain zuzen, ezkutatu edo bigarren maila batean uzten ditu.

Emakume eta gizonen arteko berdintasunaren ikuspuntutik, kirol arloak konpontzeke dauden arazo batzuk planteatzen dizkigu: haurtzarotik hasita eta ikastetxeetan kirolak aukeratzerakoan ematen den sexuen arabera sesgoa (futbola, pelota, gimnasia erritmikoa, ea.), historikoki maskulinoztatzen diren baloreen goraiapamena (abiadura, indarra, potentzia) femeninoztatzen diren baloreak horrenbeste kontutan hartzen ez diren bitartean (oreka,

koordinazioa, malgutasuna), nerabetasunean neska askok kirola egiteari uztea edo beranduago mendeko pertsonen zaintza bere gain hartzen dutenean berriz ere kirol jarduera uztea, adineko gizonen ariketa fisikoen eza beraien osasuna eta zaintzarekin lotzen ez dituzten heinean, komunikabideetan eta gizartean kirolari profesionalak diren emakumeen presentzia eza, emakumezko kirolarien irudi estereotipatuaren erreproduzioa, klub eta federazioetako zuzendaritzetan parekidetasun eza... Errealitate hauek Astigarragan ere ematen dira, hala ere, Astigarragak egoera hauek eraldatzeko eta esku hartzeko aukera asko dauka kirol eskeintza handia duen heinean eta herritarren artean kirol praktika oso zabalduta dagoelako bai udal arloan zein arlo pribatuan.

“**Kirol eskolako**” datuei dagokienez, benjamin, alebin eta infantil mailatan (9 urtetatik 14 urtetara doazenak) oso kirol modalitate gutxi eskeintzen direla esan beharra dago lehenik.

Bigarrenik, emakumeen agertze txikia, guztira %23, eta futbolaren nagusitasuna adin-tarte guztietan egiaztatu daiteke, 109 mutiko eta 12 neska egiten bait dute.

Beste kirol baten garrantzia azpimarratu beharra dago, eskubaloia, non 51 mutiko eta 12 neska besterik dabilta. Pala zabaleko pilotan ez dago mutikorik, 3 neska dauden bitartean. Bestalde, 22 mutiko eta neska bat besterik dabilta esku pilotan. Gainontzeko kirolak gutxienekoak dira eta orekatuena atletismoa da, 12 neska eta 8 mutikorekin.

Datu onuragarri moduan esan beharra dago bai benjamin zein alebin mailatan nesken kopurua antzekoa dela, 43 eta 44 neska hurrenez hurren; aldiz, mutilen presentzia, nahiz eta orokorrean nabarmenagoa izan, benjaminetan 162 izatetik, alebinetan 102 izatera pasatzen da.

“**Kirol federatuari**” dagokionez, aipatzekoa da, alde batetik, nesken presentzia oraindik ere gutxienekoa dela, guztien %12 eta berriro ere futbolaren nagusitasuna, neska eta mutilen arteko genero ezberdintasuna oraindik ere gehiago irekiz.

Emakumezkoen tradizio zabaleko beste disziplina batzuetan, saskibaloia kasu, emakumeen presentzia nabarmenki gutxiago da, 24 neska eta 49 mutiko.

“**Polikirodegira abonatuak pertsonen**” buruz, nahiko presentzia orekatua dago adin-tarte guztien artean, bi kenduta, 11 urtetik 20 urtera, eta 21 urtetik 30 urtera, non emakumeek gizonen baino gehiago uzten diote kirolari, guztira, adin-tarte honetan polikiroldegira joaten direnen artean, 155 gizonak eta 106 emakumeak dira.

Polikiroldegian eskainitako jarduera guztietan nabarmenki handiagoa da emakumezkoen izen ematea, "ciclo indoor"en ez bada, non talde anitza eta nahiko orekatua aurkitu dezakegun (47 emakume eta 40 gizon).

Ez dugu ezagutzen polikiroldegiaz aparteko "beste kirol instalazio"-en sexuka bereizitako erabilera (futbol zelaia, frontoiak, beste kantxak, etab...)

Sexuka bereizitako datuak dauden "**Kirol gertakizunei**" buruz, aipatu beharra dago sexu arteko presentzia orekatua "Ziklo Maratoian", 18 neska eta 16 mutikorekin; aldiz, beste txapelketa batzuetan, "Herri Krossa" edo "3X3 Basket Txapelketa" kasu, emakumezkoen presentzia nabarmenki bajuagoa da (17/72) eta (12/58); azkenik, "BTT Martxan" neska bakar batek parte hartzen du 79 gizonen aurrean.

Datuekin amaitzeko, eta "**Udako haurrentzako jarduerari**" begira, aipatu beharra dago, igeriketan ez ezik, non sexuen arteko oreka aurkitzen dugun, beste bi kirol aukeratan praktika oso ezberdina da adin txikitatik hasita: jolas-txiki 2 urtetik 4 urtera (9 neska eta 50 mutiko); kirol anitza (8 neska eta 25 mutiko)

Jarraian ardatzak, berariazko helburuak, jarduerak, betetze urtea, arlo arduradunak eta adierazleak biltzen dira:

1. ARDATZA- BALIOAK ALDATZEA ETA EMAKUMEAK AHALDUNTZEA

4.1 Partaidetza mistoko aisi jarduerak sustatu, neska eta mutil gazteak berdintasunean elkarrekin bizi daitezen.

4.1.1. Aisialdiko begiraleentzat genero berdintasunaren gaitan formakuntzarekin hasi. 2015

4.1.2. Gaueko kirol jarduera mistoak antolatu gaueko kontsumoari eta bereizitako harremanei lotutako gaueko aisiaren hautabide moduan, zeintzuk gizonezkoen gehiengoa izan ohi duten.

4.1.3. Igande edo/eta asteburuetan neska eta mutilen zuzendutako irteera eta txangoen programazioarekin jarraitu, neska eta mutil gazteen arteko berdintasuneko bizikidetza landuz. 2015-2018.

4.1.4. Jardueretan emakume etorkin gazteenen partaidetza bultzatu, deialdi zuzenak eginez, barneratzen dituzten irudiak erabiliz, etab... udaleko teknikariei aurretik jokabiderako jarraibideak emanez. 2015-2016

4.2 Gazte jendearen artean maskulinitate eta feminitate eredu berriak bultzatu, estereotipo sexistetatik haratago.

4.2.1. Mutilei zuzenduriko tailerrak egiten jarraitu, maskulinitatearen eraikuntzari buruz formatu eta sentsibilizatzeko (pelikulen, komiki pertsonaien, bideojokuen, pertsonai ezagunen, bizipen pertsonalen analisisien bitartez). 2015-2018

4.2.2. Egutegi bat egin, non neska-mutilen partaidetzaren bitartez haien aniztasuna isladatu, estereotipo sexistetatik haratago. 2015

4.2.3. Homofobiaren prebentziorako kanpainak egin, bereziki gazteei zuzenduak, komunitate eta elkartegintzan landuz baita ere. 2016

4.2.4. Baliabide audiobisualen gida bat egin gazteentzat eta haien partaidetzarekin, (dokumentalak, laburmetraiak, pelikulak) irudiaren inguruko eztabaida pizteko, estereotipo sexistei eta menpekotasunean oinarritzen diren harreman asimetrikoei arreta berezia jarriz, kudeaketarako erakunde/persona arduradunak izendatuz. 2016

4.3 Errespetuan eta berdintasunean oinarritutako harreman afektiboen inguruan sentsibilizatu.

4.3.1. Parekideak ez diren harremanei buruz, maitasun erromantikoaren mitoei lotuak, eta hauen ondorioen inguruko sentsibilizazio tailerrak (jeloskorkeria, kontrola, menpekotasuna). 2015

4.3.2. Otsailaren 14aren alternatiba izan daitekeen jardunaldi/festa bat ospatu, gazteen arteko maitasun abesti eta pelikula ospetsuak aztertzeke eta errespetuan oinarritutako alternatiba parekidea proposatzeko. "Ligoteo jatorrerako" tailerra, etab... 2015-2018

4.4 Kirol arloan genero ikuspegia sartzen hasi plangintza, kudeaketa eta komunikazio prozesuen bitartez.

4.4.1 Genero ikuspegia bilduko duen kirol jarduera plangintza bat burutu, herriko kirol elkarteekin koordinatuz.

4.4.2 Kirolaren kudeaketan emakumeen interesak, beharrak eta itxaropenak bildu, haiek osatzen dituzten elkarten eskaerei arreta eskeiniz.

4.4.3 Kirol arloan, barne eta kanpo komunikazioetan hizkera ez sexista eta barneratzailea erabili, baita kirol gune guztietako komunikaziorako osagaietan. 2016

4.5. Berdintasun printzipioa kirola eta hezkuntza alorrean egokitu

4.5.1. Hezkuntza komunitateari zuzenduriko kirolari lotutako genero estereotipoen inguruan sentsibilizazio jarduerak antolatu. 2017

4.5.2. Aisialdiko begiraleei eta kirol teknikariei (entrenatzaileak) zuzendutako generoari buruzko formakuntza antolatu. 2015

4.6 Jolas kirol-aisia (ez lehiakorra) sustatu, aisirako hautabide gisa eta neska eta mutilen arteko bizikidetzaren adibide.

4.6.1. Gazte jendeari zuzendutako sentsibilizazioarekin jarraitu, kirol praktikak gorputzean, buruan eta osasunean duen onuraz, emaitzetatik, kontsumotik eta irudi estetikoaren garrantzitik baztertuz. 2016

4.6.2. Herriko gazteei zuzendutako gaueko kirol topaketa mistoak antolatu. 2016

4.6.3. Neska gazteek kirola egiteari uztearen zergaitiak ikusteko azterlan bat egin, ikastolan bigarren hezkuntzako kirol arloko arduradunekin koordinatuz. 2016

4.6.4. Ikastolako Heziketa Fisikoko ikasgaitik, kirol eskolatik eta hezkuntza komunitatetik, kirol munduan balore ez sexisten igorpena lantzen jarraitu. 2018

4.7 Gizon helduak kirol jardueretan inplikatu, norberaren zaintza, osasuna eta ongizatearekin lotuz.

4.7.1. Gizon helduekin ohitura osasuntsuak eta kirol jarduerak duten garrantziaren inguruko sentsibilizazioa eta formakuntza landu, hirugarren adineko elkarrekin elkarlanean. 2015

4.8 Emakumezkoen kirol jarduerak ikustarazi

4.8.1. Emakumeak protagonista diren kirol jardueren babesa bultzatu. 2015

4.8.2. Gizon eta emakumeen kirol jarduera eta baliabideetan parte hartzearen inguruan dauden datuen azterketa. 2016


4.8.3 Emakumezkoen kirol praktikari begira dagoen informazioa eta sentsibilizazioa sustatu. 2016

4.8.4. Kirol federazioetan eta klubetako zuzendaritza organoetan emakumeen parte hartzea bultzatu, gai hauek udal kontratazio edo/eta dirulaguntzetan kontutan hartuz, eta betetzearen jarraipena eginez. 2015

2. ARDATZA - GIZARTE ANTOLAKUNTZA ERANTZUKIDEA

4.9 Gaztedia erantzunkidetasun gaietan sentsibilizatu, etorkizunean familiako eta laneko bizitzaren uztartzeari laguntzeko

4.9.1 Gazteei zuzendutako erantzunkidetzari buruzko sentsibilizazio kanpainekin jarraitu, elkarteekin eta arlo komunitariorik ere landuz. 2016

 3.ARDATZA- EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA
DESAGERRARAZTEA

4.10 Gazteen artean emakumeen aurkako indarkeriari buruzko prebentzioa, sentsibilizazioa eta antzematea

4.10.1. Hezitzaileei, gazte elkarteei eta gazteei zuzendutako formakuntza eta sentsibilizazio tailerrak egin emakumeen aurka dauden indarkeri mota guztiak ezagutzeko, eta batez ere gazteen harreman esparrutan ein haundi batean ematen direnak: teknologia berriak, sare sozialak, jaiak, bikoteak, familia, ikastola, etab... 2015

4.10.2. Neska gazteekiko izan daitezkeen eraso sexistei aurre egiteko lanarekin jarraitu: autodefentsa tailerrak. 2015-2018

4.10.3. Azaroaren 25aren inguruan hitzaldiak eta jarduerak egiten jarraitu eta espezifikoki egun horren ospakizunean parte har dezaten bultzatu. 2015-2018.

ARLO ARDURADUNA:

GAZTEDIA, JAIK ETA KIROLA
GIZARTE PARTAIDETZA ETA KIROLA

Adierazleak

- **1. Formatutako pertsonen %, teknikariak, politikariak eta elkarteetan arabera bereiztua / baita sexuka ere**
- **2. Parte hartzaileak jasotako formakuntza ordu kopurua**
- **3. Landutako programazioak**
- **4. Sartutako hobekuntzak**
- **5. Egindako formakuntza eta/edo sentsibilizazio jarduerak**
- **6. Landutako egutegia**
- **7. Egindako sentsibilizazio kanpainak**
- **8. Eskuratutako fondo bibliografikoak**
- **9. Egindako azterlanak**
- **10. Lortutako kirol babesak**
- **11. Sexuka bereizitako datuak**

5. ARLOA- OSASUNA, GIZARTE ONGIZATEA ETA INMIGRAZIOA

Osasuna

Gaur egun gaituta dagoen ikuspegi batek gizarte eta osasun zerbitzu publikoak zaintzarako neurri sorta bat bezala irudikatzen zituen. Historikoki eta gaur egun ere, emakumeak (beti ere gizonak baino dependienteago ekonomikoki) izan dira zerbitzu hauei erabilpen gehien eman dietena, eta beti gehien bat emakumeek osatutako lan-taldean aurrean. Osasuna, gaixotasun ezatik haratago, bizi-kalitatearekin harreman dago eta hau, aldi berean, lanean, familian, gizartean, ekonomian eta maila pertsonalean izaten diren baldintzekin.

Arlo hauetan, erantzunkizunen eta aukeren kudeaketak eragin zuzena dauka herritarren osasunean. Ez da arraroa pentsatzea parekidetasun ezak seriozki mintzen duela osasuna, batez ere lan eta diru baldintza okerrenak pairatzen dituen jendeari dagokionez, ordaindu gabeko lanak (etxea eta inguruko zaintzarekin lotutakoak) bere gain hartzen dituen jendearekin gertatzen den bezala.

Berdintasun alorretik lan egin da pertsona horiei zaintza, formakuntza eta aholkularitza eskaintzeko. Emakumeei, hain zuzen, hauek direlako zaintzaile moduan lan egin ohi dutenak. Bigarren plan honek emakumeen bizi baldintzak hobetzeko eta erantzunkidetzaren alde jarraitu nahi du lanean, zuzenean lotuta dagoelako, ez soilik justiziarekin, baizik eta ongizatearekin eta elkarbizitzarekin.

Gizarte Ongizatea

Krisi ekonomikoak zerbitzu sozialen erabiltzaileen profila aldatu du, baita Astigarragan ere. Aurreko Plana indarrean egon zen bitartean Zerbitzu Sozialen erabiltzaile gehienak emakumezkoak baziren eta langabeziaren portzentai handiena emakumeengan topatzen bagenuen, esan dezakegu joera hori erabat aldatu egin dela eta gero eta gizonezko gehiago aurkitzen ditugu langabeziaren estatistiketan. Hala ere, honek ez du esan nahi emakume eta gizonen egoerak berdindu egin direla, emakumeek gaur egun eta oraindik ere egoera larrienak pairatzen jarraitzen baituzte, bereziki bazterketa sozial arriskuan dauden emakumeak, emakume migratuak, aniztasun funtzionala dutenak eta besteekiko ardura dutenak.

Hurrengo bi paragrafotan bildutako datuak 2012an landutako **Donostiako Mendebaldeko arlo Sozio Ekonomiko eta Lan Merkatuaren arloko Diagnostikoaren** azterlanetik jasoak dira.

2009ko familia-arteko batazbesteko errenta maila alderatzen badugu, eskualdeko 6 udalerrien arteko gorakada haundiena Astigarragan ematen

da (%19,8). Izan ere, eskualdeko lehenengo udalerrria da errentari begiratzen badiogu (43.479€) eta familia-errenta erabilgarri altuena duena (37.386€).

Diru Sarrerak Bermatzeko Errentaren titularrei dagokionez, 2012an, Astigarragan, batazbesteko adina 51,9 urtetakoa zen gizonen artean eta 50,3 emakumeen artean.

Hurrengo datuak, Gizarte Zerbitzuetako udal arlotik jaso dira.

Orain arte -2014eko urria-, 68 familik jasotzen dute Diru Sarrera Bermatzeko Errenta Lanbidetik, eta 19k jasotzen dute Gipuzkuko Aldunditik. Bestalde, 322 pertsona daude minusbalioak. Gaur egun Gizarte Zerbitzuetan erabilitako datuak jasotzeko ereduak eta aplikazio informatikoak ez dute aukerarik ematen sexuka bereizitako datuak jasotzeko.

Uztartzea Gizarte Zerbitzuetatik lantzen hari den erronka jarraitzen du izaten eta oraindik ere lortzeke dagoena. Norberarentzako denbora libre urriagoa (lana bilatzeko, ordaindutako lana egiteko eta baliabideak lortzeko) Astigarragako emakumeen artean errealitate bat da oraindik ere.

Aipamen berezia eskatzen du azken urte hauetan lantzen doan emakumeen aurkako indarkeriak, non antzemandako kasuetan zuzenean parte hartzen duten pertsona guztien lanaren koordinazioa egiten hari den: udaltzaina, aholkularitza juridikoa, osasun laguntza eta psikologikoa, baliabide hornidura eta erazteko sentsibilizazioa eta formakuntza. Hala ere, gaur egungo krisi ekonomiko egoerak erne egotea eskatzen du sortu litezkeen emakumeen aurkako indarkeri kasu berriak antzeman ahal izateko, indarkeri mota hau jasaten duten emakume askoren bulnerabilitatea eta mendekotasuna areagotu egin delako.

Gaur arte -2014eko urria- eta Ertzainak eskeinitako datuen arabera, Astigarragan aurten etxeko eta genero indarkeri 12 kasutan egin dira izapideak. Horietan, 2014ean indarrean dauden txostenen artean, 5 dira urrunduz eta komunikaziorik gabeko agindua dutenak eta 3 urruntzeko agindurik gabekoak.

Funtseskoa da administrazioetik emakumeen aurkako muturreko indarkeri eta baztertzeko mota honi sendotasunez aurre egiten jarraitzea. Hala ere, herritar guztien inplikazioa adierazpen matxista mota guztiak salatu eta ukatzeko.

Jarraian ardatzak, berriazko helburuak, jarduerak, betetze urtea, arlo arduradunak eta adierazleak biltzen dira:

1. ARDATZA-BALIOAK ALDATZEA ETA EMAKUMEAK AHALDUNTZEA

5.1 Emakumeen autonomia hobetu euren osasuna kudeatzeko orduan eta arlo honetan erabakitze gaitasuna bultzatu.

5.1.1. Lehen arretarako taldearekin elkarlana egin, osasunaren arloan herriko emakumeen kezka eta behar nagusiak jasotzeko. 2015-2018

5.1.2. Esparru hauetara lotutako osasun zentruko eta gizarte zerbitzuetako langileak genero gaitan formatzen hasi / jarraitu. 2015-2018

5.1.3. Bereziki nerabe eta gazteei informazioa eskeini, elikaduraren inguruko desorekei buruz eta anorexia, bulimia eta/edo bigorexiaren arriskuei buruz, Haur Batzordearekin lankidetzan. 2016

5.1.4. Emakumeei antisorgailuen inguruko informazioa eskeini, baita sexu eta ugalketa eskubideei eta honekiko erantzunkidetasunari buruz (emakume migratuen berriazko ezaugarriak kontutan hartuz lanean jarraitu). 2015-2018

5.1.5 Drogen kontsumorako prebentzio programetan informazioa sartu substantzien kontsumoak emakumeei bereziki eragiten dieten faktore eta arriskuei buruz. 2015-2018

5.2 Testuinguru sozioekonomiko berriek emakumei nola eragiten dieten ezagutzera eman, Gizarte Zerbitzuetatik esku hartze lanean arreta berezia eskeiniz

5.2.1. Krisi ekonomikoak emakumeengan duen berriazko eragina herritarrei ezagutzera eman (ezkutuko ekonomia, ordaindu gabeko etxe lanera itzulera, ezegonkortasuna, bulnerabilitate berriak, etab...) 2015

5.2.2. Gizarte Zerbitzuetatik krisi ekonomikoak sorrarazi dituen eta emakumei eragiten dieten behar eta errealitate berriak genero ikuspegiarekin aztertu eta arreta berezia eskeini. 2015-2018

5.3 Isolamendu eta /edo bazterketa arriskuan dauden emakumeen baldintzak eta jarrerak hobetu

5.3.1 Diru Sarrera Bermatzeko Errenta eta Diru Sarrera Bermatzeko Laguntza jasotzen dutenen eta minusbaliotasuna duten pertsonen buruzko informazioa jasotzeko ereduetan eta /edo gizarte zerbitzuetan erabiltzen

diren aplikazio informatikoetan, sexu aldagaia bildu informazioa sexuka banakatu eta ondoren azterlana egin ahal izateko. 2015

5.3.2 Dauden giza baliabideak egokitu, gizarte bazterketa arriskuan dauden emakumeei zuzenduz eta autonomiaren sustapenean, orientabide soziolaboralean eta sozio komunitarioan eragina eginez. 2017

5.3.3 Gaitasun sozialak eskuratzeko formakuntza esparruak eta baliabideak eskaintzen jarraitu, baita emakume helduentzako aisialdi jarduerak, batez ere bakarrik eta/edo herrigunetik urrutik bizi direnentzako. 2017

5.3.4 Gizarte-osasun eta baliabide psikosozialei buruzko informazioa erraztu adin nagusiko emakumeentzat eta isolamendu eta bazterketa sozial arriskuan daudenentzat. 2017

2. ARDATZA - GIZARTE ANTOLAKUNTZA ERANTZUKIDEA

5.4. Baliabideak eskeini eta ikustarazi emakume eta gizonen arteko erantzunkidetzeta eta uztartzea lortuko duten aldaketa soziala errezteko.

5.4.1 Udalerrian uztartzeko dauden zaintzarako baliabideen zerrenda bat landu (haurren biztanleria, hirugarren adinekoak, minusbaliotasuna eta beste mendekotasun batzuk dituztenak), erabilera bultzatu eta beharrak nahiko asetuak dauden aztertu; behar izanez gero neurri berriak sortu dauden azpiegiturak eta uztartze zerbitzuak hobetzeko. 2015

5.4.2 Genero ikuspegiarekin antolatutako hiri kanpamentuak egiten jarraitu uztartzerako neurri moduan. 2015-2018

5.5. Etxean erantzunkidetzeta eta uztartze gaietan biztanlegoaren inplikazioa eta parte hartze maila areagotu.


5.5.1 Erantzunkidetzeta esparruan sentsibilizazio kanpainak landu, jarduera zehatzekin, urtero herriko giza talde desberdin bat inplikatuz. 2015-2018

5.5.2 Izatezko bikote eta senar-emazte berriei formakuntza eskeini eta sentsibilizatu etxeko egin beharren banaketari eta seme alaben zaintzari buruz. 2016

5.5.3 Bereziki gizonei zuzendutako ikastaroak egin besteen arduraren dauden pertsonen zaintzarako gaitzeko (hautzaroa / zaharrak). 2017

5.6 Zaintzaileen bizi kalitatea hobetu.

5.6.1. Besteen ardura behar duten pertsonak zaintzen dituzten emakume / pertsonen berriarazko arreta, informazioa eta orientabide zerbitzuak eskeini. 2016.

 3.ARDATZA- EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA
DESAGERRARAZTEA

5.7 Indarkeria jasaten duten emakumeekiko koordinazioa eta arreta hobetu.

5.7.1. Aldika (hilabetero) ertzainak kudeatzen duen udalerriko emakumeen aurkako indarkeri salaketa erregistro gaurkotua erabili. 2015

5.7.2. Udalerrian emakumeen aurkako indarkeriaren eragina, zergaitiak eta ezarri daitezkeen prebentzio neurriak aztertu. 2015

5.7.3. Emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko udal protokoloa ikustarazi non arreta, prebentzioa eta jarraipena egiten duten eragile guztiek parte hartzen duten, eta elkarteak inplikatu. 2015

5.7.4. Indarkeriaren aurkako udal protokoloan parte hartzen duten eragileen koordinazioa hobetu, gertakizun hauek berdintasun faltari lotuz eta elkarteak inplikatu. 2015-2018

5.7.5. Udalerriko baliabideak zabaltzen jarraitu indarkeria jasaten duten emakumei arreta eskeini, babestu eta laguntzeko (emakume etorkinen berriarazko ezaugarriak kontutan hartuz). 2015-2018

5.8 Emakumeen aurkako indarkeria errotik kentzeko formazioa eta sentsibilizazioa eskeini

5.8.1 Emakumeen aurkako indarkeri kasuetan parte hartzen duten profesionalen zuzenduriko formakuntzarekin jarraitu, teknikari eta politikariei zabalduz. 2015-2018

5.8.2 Herritar guztiei zuzenduriko emakumeen aurkako indarkeriari buruzko sentsibilizazio kanpainak egiten jarraitu, hau berdintasun gabeziarekin lotuz, adierazpen modu berriak erakutsiz eta datuak zabalduz. 2015-2018

ARLO ARDURADUNA:

GIZARTE ONGIZATEA ETA INMIGRAZIOA
OSASUNETXEA
GIZARTE PARTAIDETZA ETA BERDINTASUNA

Adierazleak

- **1. Formatutako pertsonen %, teknikariak, politikariak eta elkarteen arabera bereiztuta / baita sexuka ere.**
- **2. Parte hartzeak jasotako formakuntza ordu kopurua.**
- **3. Sartutako hobekuntzak**
- **4. Egindako informazio, sentsibilizazio eta/edo formakuntza jarduerak**
- **5. Sexuka bereizitako datuak**
- **6. Uztartzeko baliabideen zerrenda landua**
- **7. Egindako kanpamentuak uztartzerako baliabide gisa**
- **8. Egindako sentsibilizazio kanpainak**

6. ARLOA- HEZKUNTZA

Hezkuntza

Hamarkadak dira badagoela jendartean itun bat berdintasuna (eta honen eza) hezkuntzarekin lotzen duena. Balore parekideen transmisioa, aniztasunarekiko begirunea, diskriminazio eza eta aukeren, tratua eta eskubideen berdintasuna ezinbestekoa da hezkuntza prozesuaren barnean. Ikastetxeetan hauetatik at ematen diren jokabide sexistak ez errepikatzea guztiz beharrezkoa da. Aldi berean, era zuzen eta kontzientean eragin behar da identitatearen eraikuntza, harremanak eta neska-mutilentzako aukera berdinen bideak baldintzatzen dituzten estereotipoekin bukatzeko.

Komenigarria da Astigarragan hezkidetzaren programarekin jarraitzea eta parte hartzea beste pertsona batzuei irekiz, bertan sakondu eta haratago joan; baita bitartekotzarekin jarraitu, bai esparru arautuan zein ez arautuan, Gaztelekuak hezkidetzaren gaitan hezkuntza komunitatea osatu eta koordinatuz eta aitak eta amak formatuz.

Jarraian ardatzak, berriazko helburuak, jarduerak, betetze urtea, arlo arduradunak eta adierazleak biltzen dira:

1.ARDATZA- BALIOAK ALDATZEA ETA EMAKUMEAK AHALDUNTZEA

6.1 Hezkuntza komunitatea inplikatu (familiak, ikasleak, irakasleak eta irakasleak ez diren lankideak) hezkidetzaren oinarriak hezkuntza eta irakaskuntza prozesuetan sartzeko.

6.1.1. Astigarragako ikastolan hezkidetzaren programa berriro hartu edo lanarekin jarraitu, sendotu eta bertan hezkuntza komunitateko eragile berriak parte hartzera gonbidatu. 2015-2018

6.1.2. Irakasleak formakuntza eman ikasleak eta familiak feminitate eta maskulinitate eredu desberdinetan sentsibilizatu ahal izateko, askatasunean, aniztasunean eta errespetuan oinarrituz, eta ikastolan egon daitezkeen familia eredu desberdinei erantzuna emanez. 2015

6.1.3. Irakasleak irudi ez sexista eta ez estereotipatuaren erabileran formatzen jarraitu, baita ere hizkera ez sexistaren erabileran, bai hezkuntza jardueran zein barru eta kanpoko komunikazioetan. 2015

6.1.4. Ikastolarekin elkarlanean aritu sentsibilizazio kanpainak eginez erantzunkidetzari buruz, jostailu ez sexistei buruz, bideojokuak eta rolen transmisioan, martxoak 8, etab... 2015-2016

6.1.5. Famili Eskola baten sorrera bultzatu, Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntzako gurasoak hezkidetzaren inguruan izan ditzaketen beharretan formakuntza eskainiz. 2016

2. ARDATZA - GIZARTE ANTOLAKUNTZA ERANTZUKIDEA

6.2 Ikastetxeetako tokiak egokitu eta ordutegiak eta egutegiak malgutu familien uztartzea errezteko.

6.2.1 Orik 3 urterako tokien eskaera eta eskaintza egokitu, baita haur eta lehen hezkuntzan ere. 2015-2018

6.2.2 Jolastokien erabilpena eskola ordutegitik kanpo bultzatzen jarraitu. 2015-2018

6.2.3 Oporraldietan jolaserako programak eta jarduerak garatzen jarraitu, laneko eta norberaren bizia uztartzeko udal baliabide gisa. 2015-2018

6.3 Mutil eta nesken erantzunkidetzaren areagotzea etxeko eginbeharretan eta zaintzan.

6.3.1 Ikastolako ikaslegoari zuzenduriko etxeko eginbeharren banaketa eta hartu emana sustatzen duen programarekin jarraitu (belaunaldi arteko hartu emanaren Harituzeko tailerra) / (Ikastolako Ardura programa), hezkuntza ez arautuko beste esparru batzuetara zabalduz. 2015-2018

3. ARDATZA - EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA DESAGERRARAZTEA

6.4 Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioan eta beste indarkeri eta bazterketa mota batzuekiko (bullying, cyberbullying) edo hezkuntza eremuan eraso homofoboekiko lanean jarraitu.

6.4.1. Emakumeen aurkako indarkeriari buruz eta ikastolan eskola-jazarpenari buruzko berriazko protokoloak idatzi eta abian jarri. 2017

6.4.2. Hezkuntza komunitate guztiari zuzendutako formakuntza eta sentsibilizazio kanpainak egin dauden bullying eta cyberbullying mota desberdinak eta hauen prebentzioari buruz. 2015-2016

6.4.3. Ikastolan lehen eta bigarren hezkuntzan emakumeen aurkako indarkeria eta eskola-jazarpenaren inguruan egiten den lana aztertu eta bi mailatan lan koordinatua egin. 2015

ARLO ARDURADUNA:

HEZKUNTZA

HERRITARREN PARTAIDETZA ETA BERDINTASUNA

Adierazleak

- **1. Formatutako pertsonen %, teknikariak, politikariak eta elkarteen arabera bereiztua / baita sexuka ere**
- **2. Parte hartzaileak jasotako formakuntza ordu kopurua**
- **3. Egindako sentsibilizazio kanpainak**
- **4. Hezkidetza gaian sortutako Famili Eskola**
- **5. Sartutako hobekuntzak**
- **6. Oporraldietarako sortutako uztartze baliabideak**
- **7. Egindako informazio, sentsibilizazio eta/edo formakuntza jarduerak**
- **8. Landutako indarkeria protokoloak**

7. ARLOA - GIZARTE PARTAIDETZA

Astigarragako gizarteko bizitzan dagoen elkartegintza gabeziak eta herritarren parte hartze antolatu urriak, udalerrriaren ezaugarri nagusienetarikoak dira. Hala ere nabarmendu beharra dago sortu berria den Harituz Elkartea eta Emakume Kirolari bezalako ekimenak. Honen eragina da, eraldaketarako eta biztanlegoaren bizi kalitatearen hobekuntzarako edozein ekimen moteldu egiten dela.

Udalerriko ohitura eta Kultura parte hartzaileak eragiten du emakumeek gizarteko bizitzan eta kulturen parte hartu dutela, ohituraz gizonezkoei egokitutako esparruetan.

Hala ere, itxuraz berdintasunarentzat batere lagungarri ez den egoera batetik abiatzean, gai izan behar dugu berdintasunarekiko ematen hari diren aurrerapausuetan sakontzeko, baita arlo parte hartzailean ere, aurre egin beharreko erronka berri eta zaharrak nabarmenduz: batzorde eta zuzendaritza organoetan berdintasun gabezia, jai esparruetan emakumeen aurkako indarkeria eragozteko baterako neurriak hartzeko beharra, emakumeen parte hartzea bisibilizatu, etab...

Jarraian ardatzak, berriazko helburuak, jarduerak, betetze urtea, arlo arduradunak eta adierazleak biltzen dira:

1.ARDATZA- BALIOAK ALDATZEA ETA EMAKUMEAK AHALDUNTZEA

7.1 Udalerriko gizarte eta kultura bizitzan emakumeen parte hartzea eta elkartegintza mugimenduan sustatu.

7.1.1. Genero ikuspegitik herriko gizarte bizitzan, kulturen, etab.. nabarmenak izan diren emakume eta/edo elkarte edo erakunde ibilbideari herriaren esker ona eman. 2016

7.1.2. Emakumeekin eta gizarte partaidetzarekin harremana duten jarduerak burutu. 2015

7.1.3. Herriko jaietan Genero Berdintasunaren Eguna ospatu. 2015

7.2 Elkartegintza mugimendua aukera berdintasuna, partaidetza eta gizonen eta emakumeen arteko bizikidetzaren bultzatzeko gune bihurtu.

7.2.1. Berdintasun Batzordeko lana sendotu, herriko elkarte eta taldeen partaidetza areagotuz. 2015

7.2.2. Udalerriko elkarteetan sexu arteko berdintasunaren egoeraren azterketa egin. 2016

7.2.3. Udalerriko elkarte eta taldeei berdintasunaren inguruan formakuntza eskaini, baita euren erakundeetan berdintasuna ezartzeko jarraibideak. 2015

7.2.4. Sortu berriak diren elkarteetako estatutuetan berdintasunarekiko berriazko konpromezua aurreikustea sustatu. 2015

7.2.5. Elkarte mistoetako zuzendaritza organoetan sexu arteko oreka nabarmenagoa lortu eta horretarako jarduerak landu. 2016

7.2.6. Martxoaren 8aren antolakuntzan elkarte eta taldeen inplikazioa eta parte hartzea sustatu. 2015

7.2.7. Jai-txapelketetan parte hartze mistoa sustatu edo txapelketak antolatu ohituraz emakumezkoak diren jarduera/jokuetan (balioan jartzeko) edo gizonezkoenak direnekotan (emakumeen parte hartzea ikustarazteko). 2015

 3.ARDATZA-EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA
DESAGERRARAZTEA

7.3 Elkartegintza mugimendua emakumeen aurkako indarkeriaren eraztean nahasi.

7.3.1. Urtero sentsibilizazio kanpaina bat egin, gizarte mugimenduak, talde eta elkarteen partaidetzarekin, asialdi eta jai esparruetan emakumeen aurkako indarkeriaren prebentziorako, bereziki herriko jaietan eta sagardotegi garaian. 2015-2018

7.3.2. Azaroaren 25aren antolakuntzan elkarte eta taldeen parte hartze eta inplikazioarekin jarraitu. 2015-2018

ARLO ARDURADUNA:

GIZARTE PARTAIDETZA ETA BERDINTASUNA
KIROLA, JAIK ETA GAZTEDIA

Adierazleak

- **1. Formatutako pertsonen %, teknikariak, politikariak eta elkarteetara araberaren bereiztua / baita sexua ere**
- **2. Parte hartzaileak jasotako formakuntza ordu kopurua**
- **3. Egindako herriko esker onaren eskeintza emakumeei**
- **4. Egindako sentsibilizazio eta formakuntza jarduerak**
- **5. Jailetan Genero Berdintasunaren Eguna sortua**
- **6. Sartutako hobekuntzak**
- **7. Egindako azterlanak**
- **8. Egindako sentsibilizazio kanpainak**

8. ARLOA- ENPLEGUA

Enplegua

Jarraian eskualde mailan, 2012an landutako "Donostiako Mendebaldeko arlo Sozio Ekonomiko eta Lan Merkatuaren arloko diagnostikoan" datu adierazgarrienak biltzen dira.

- ✂ Emakumeak gizonak baino errenta maila bajuagoa erakusten dute.
- ✂ Bestalde, familien errenta mailatan genero desberdintasunak agerikoak dira eskualdeko udalerrri guztietan.
- ✂ Diru Sarrera Bermatzeko Errentaren titular kopuru garrantzitsua dago, hartzaileak gehienetan emakumezkoak izanik.
- ✂ Donostialdea-Mendebaldeko biztanleria aktiboaren gorakada nabarmena egon da azken hamarkadetan, hein batean emakumezkoen lan merkaturatzeari esker.
- ✂ Azken urteotan, langabeziak gehiago eragin die gizonezkoei emakumezkoen baino, ondorio txarrenak ohituraz gizonezkoei atxikitutako sektore profesionalak jasan dituztelako. Hala ere, gaur egun langabezian emakume kopuru gehiago dago inskribatua gizonak baino.

Biztanlego potentzialki aktiboaren proportzioa nabarmen murriztu da 2001/2011 denboraldian, bai Donostialdea-Mendebaldean (%-6) nola Gipuzkun (%-3,8). Gaur egun, eskualdeko biztanleriaren %67,2a lanerako adinean dago, probintzia osoan baino zerbait gehiago (%66,3). Eskualdean barru Astigarragak dauka adin tarte honetan biztanleria portzentai altuena (%69,5).

Eskualdeko **jarduera tasa** altuena Astigarragan kokatzen da (%54,5)

Bestalde, **enplegu tasa** handiena Andoainen ematen da (%72,7), ondoren Astigarraga eta Urnietan (bietan %68,8).

2001 eta 2006 tartean **enplegu tasa** areagotu egin zen **emakumeen** artean %60,0tik, %61,5era eta **gizonen** kasuan, %83,7tik, %83,3era.

Jardueraren hazkunde handiena emakumezkoen artean ematen da, beraz, emakumeen lan merkaturatzea bilakatzen da **jarduera tasaren** hazkundearen eragile nagusia. Emakumezkoen jarduera tasa handienak udalerrri txikietan ematen dira, Astigarraga buru (%46,3), baita tasa areagotze handienak.

Emakumeen kasuan, **enplegu tasa** handienak eskualdeko hiru herri txikienetan biltzen dira berriro ere (Urnieta, Usurbil eta Astigarraga), azken hau %61,5arekin.

Hau da, alde batetik, Astigarragan (eta Usurbilen) emakume gehiagok egiten dute lan (ez nahitaez bertakoak) eskualdeko beste herrietan baino, bertako emakumezko biztanlegoari dagokionez.

Astigarragan, **lehen lana bilatzen hari diren langabetuen** portzentaia %14a da.

2007/2012ko denboraldian, **langabetuen** kopurua bikoiztu egin da: gaur Astigarragan 232 (+113), **105 gizonak eta 127 emakumeak** izanik.

Eskualdeko barrualdean, **langabezi tasa** altuenak Lasarte-Oria (%14,92) eta Andoainen (%14,13) aurkitzen ditugu; bajuenak, Astigarragan (%7,99)


Kuantitatiboki hau ez da bateraezina udalerrri txikietan langabezia gehien handitzearekin (Urnieta, Usurbil eta Astigarraga).

Ratorik bajuenak, hala ere, Usurbilek dauka (%78,6) Astigarragan ematen hari den langabeziaren gorakada indartsuaren ondoren (mila biztanleko 16,9 langabetu gehiago 2011ko lehenengo seihilekoan baino)

Langabetuen ratioak, azken urteetako langabeziaren areagotzeak sexu arteko oreka handiagoa eragiten duela hipotesia sendotzen du: sexu arteko desoreka bajuenak Lasarte-Oria, Hernanin eta Andoainen ematen da eta altuena Astigarragan.

Hala eta guztiz ere, erregistratutako emakume langabetuen ratioa lanerako adinean dauden emakumeekin alderatuz, gizonen artean ematen dena baino altuagoa da eskualdeko udalerrri guztietan.

Jarraian ardatzak, berriazko helburuak, jarduerak, betetze urtea, arlo arduradunak eta adierazleak biltzen dira:

 1.ARDATZA-BALIOAK ALDATZEA ETA EMAKUMEAK
AHALDUNTZEA

8.1 Lanerako orientabide eta informazio zerbitzuetan genero ikuspegia sartu

8.1.1. Ohar informatiboen hedapena aldika jasotako enplegu datu batzuekin, sexuka bereizirik. 2015-2016

8.1.2. Lanbidetik Udaletxera hilero bidalitako datuen azterketa genero ikuspegiarekin. 2015-2016

8.1.3. Udaletxera enplegurako informazioa bila gerturaten diren pertsonei zerbitzua eskaintzen jarraitu, genero ikuspegia sartuz.

8.1.4. Udalerriko enplegurako informazio zerbitzua jaso duten pertsonen kopurua eta profila aztertu sexuka, hala ere, gizonak eta emakumeak erakusten dituzten behar desberdinak.

8.1.5. Enpleguari buruzko udalerriko datuak eta haien genero azterketa ezagutzera eman eta Eskualdeko Enplegu Zerbitzura eraman.

8.1.6. Emakumeei informazioa eskaintzen jarraitu eta eskualdean dauden lanerako formakuntza eta formakuntza okupazionalerako programetara bideratu, lan baldintza eta soldata hobetoak dituzten sektore eta jardueren profesioetan eragina eginez.

8.1.7. Emakumeei eskualdean dauden lanbide orientazio eta ekintzaileentzako programei buruz informazioa eskaini eta bertara bideratu.

8.1.8. Enpresariari gizatalde desberdinen kontratazioerako (emakumeak besteak beste), dauden diru laguntza autonomikoei buruz informazioa eskaintzen jarraitu.

8.2 Emakumeei lan bilaketarako abiapuntu hobeto batean kokatu dituen formakuntzak eskaini

8.2.1. Eskualde mailan emakumeei zuzenduriko ahaldundutze eta lan bilaketarako gaitasun sozialak garatzeko ikastaroak burutu. 2016

8.2.2. Eskualde mailan batez ere emakumeei zuzenduriko lan bilaketara bideratutako teknologia berrien erabilera gaitzeko ikastaroen antolaketak proposatu, eta enplegua eta autoenplegurako aholkularitza. 2016

2. ARDATZA - GIZARTE ANTOLAKUNTZA ERANTZUKIDEA

8.3 Uztartze gaitan enprekin sentsibilizazio lana egiten hasi

8.3.1 Udalerriko enpresei eskualde mailan uztartze neurriak ezartzeko informazioa eta aholkularitza eskeini. 2018

**3.ARDATZA- EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA
DESAGERRARAZTEA**

8.4. Eraso sexuala eta sexu arrazoia dela eta lan arloan ematen diren erasoeri buruzko gaitan sentsibilizazioa hasi

8.4.1 Eskualde mailan, informazio eta sentsibilizazio kanpainak burutu eraso sexualak eta sexu arrazoiak direla eta ematen diren erasoen inguruan, hauen prebentzioa eta trataerarako protokoloak sortuz. 2018

ARLO ARDURADUNA:

ENPLEGURAKO ESKUALDEKO ZERBITZUA
GIZARTE PARTAIDETZA ETA BERDINTASUNA

Adierazleak

- **1. Landutako ohar informatiboak**
- **2. Egindako genero azterketak**
- **3. Enplegurako informazio zerbitzuetan arreta jaso duten persona kopurua, sexuka, adinka eta profilaren arabera bereiztuak**
- **4. Bideratutako persona kopurua sexuka / bideratutako enplegu zerbitzuagatik banakatuak**
- **5. Egindako sentsibilizazio eta formakuntza jarduerak**
- **6. Formatutako pertsonen % sexuka bereiztuak**
- **7. Parte hartzaileak jasotako formakuntza ordu kopurua**
- **8. Egindako sentsibilizazio kanpainak**
- **9. Sartutako hobekuntzak**

7. ABIAN JARRI, JARRAIPENA ETA EBALUAKETA EGITEKO SISTEMA

II Berdintasun Planaren kudeaketa, egun dauden UDAL BERDINTASUNERAKO EGITUREN bitartez egingo da, udal Berdintasun Teknikariak koordinatuak.

- "Herritarren Partaidetza eta Berdintasunaren" Batzordean Alkateak, Berdintsaun Zinegotziak eta talde politiko bakoitzeko ordezkari batek hartuko dute parte. II Planarekin, Berdintasun arloa indartu egiten da, berezko aurrekontua haunditu eta zeharkakotasuna indartu beste Udal Arlotan. 2015aren hasieran Berdintasunerako Udal Ordenantzaren lanketari hasiera emango zaio.

Astigarragako Udaleko gizon eta emakumeen arteko berdintasunerako Ordenantza oinarritzko dokumentu arauemailea izanen da - eta nahitaez betetzekoa- gai honetan toki gobernua esku hartu ahal izateko.

Bestalde, Berdintasun Plana aldizka emakume eta gizonen arteko berdintasun gaietan udal politikako garapena eta gauzatzea isladatuko duen dokumentua izanen da. Eta 4/2005 Legearen 15.3 artikulua dioena kaltetu gabe, Berdintasun Planak jarduera neurri zehatzak garatuko ditu Ordenantza honetan aurreikusitako edozein esku hartze esparrutan eta beharrezkotzat hartzen diren beste batzuetan.

- Berdintasun Batzordea, arlo politiko (Berdintasun Zinegotzia), tekniko (Berdintasun Teknikaria) eta sozialekoak (Berdintasun gaia landu eta/edo gaian interesa duten herriko elkarte edo taldeak) diren pertsoez osatua dago. II Planetik abiatuta, emakumeen elkartegintzaren parte hartzea sustatu egiten da, HARITUZeko partaideen agertze nabarmenagoarekin.

BERDINTASUN EGITURA BERRIA

-II Planaren bitartez, ARLO-ARTEKO Berdintasun Batzorde bat sortzen da non Udaletxeko arlo guztietako teknikariak parte hartuko duten. (Arkitektoa, Kultur Teknikaria, Komunikazio Teknikaria, Kirol Teknikaria, Ingurumen Teknikaria, Idazkaria eta Gizarte Langilea)

Aipatutako hiru berdintasuneko batzordeak udal Berdintasun Tekinkariak koordinatuko ditu. Teknikariaren eginkizunen artean nagusia batzorde desberdinei laguntzea da, Berdintasun Planaren ezarpena, jarraipena eta ebaluaketa egiteko talde eragileak diren einean.

Hauek dira batzorde bakoitzaren eginkizunak:

ARLO-ARTEKO Batzordea Plana abian jartzeko eta urteko programazioa lantzeko.

“Herritarren Partaidetza eta Berdintasun Batzordea” Berdintasun Planaren urteko programazioa ontzat eman, jarraipena egin eta ebaluaketaren arduraduna da.

Berdintasun Batzordea Berdintasun Plana abian jartzea bultzatzez arduratuko da, baita urteko programazioari buruz informazioa jaso eta ekarpenak egitez, jarraipena eta ebaluaketa burutu ahal izateko.

Bestalde, berriazko helburuak eta aktuazio neurriak betetzeko arduradunak aurreko dokumentuan ezarritako Udal Arloak izanen dira.

Hiru hilabetero Berdintasun Batzordea bildu egingo da programazioa, jarraipena eta/edo ebaluazioa egiteko.

Sei hilabetero ARLO-ARTEKO Batzordeak bilerak burutuko ditu programazioa landu eta berdintasun Planaren abian jartzea koordinatzeko.

Aipatutako bileratan, gainera, beharrezkotzat jotzen diren pertsonak hartuko dute parte, Berdintasun Planak biltzen dituen neurriren baten ezarpenaren arduradun badira.

Bileren datak honakoak izanen dira:

- ❖ 2015eko Martxoa / Ekaina / Iraila / Abendua
- ❖ 2016eko Martxoa / Ekaina / Iraila / Abendua
- ❖ 2017ko Martxoa / Ekaina / Iraila / Abendua
- ❖ 2018ko Martxoa / Ekaina / Iraila / Abendua

Emakumeen partaidetza ziurtatua dago, Emakumeen Elkartearen ordezkariak izanik Berdintasun Batzordean.

Bi organoetan parte hartuko duten pertsonak formakuntza jarraieko prozesu bat burutuko dute berdintasun gaietan.

2015ean, Berdintasun Planaren garapenerako aurrekontua, 27000€ takoa da.

8. ABIAN JARTZEKO / PROGRAMAZIOA EGITEKO SISTEMA

Urteko programazioa urte amaieran egingo da, bi prozesu koordinatuz, udal aurrekontuen lanketa eta Berdintasun Planaren urteko jarraipena-ebaluaketa eginez.

Dokumentu eragile bat landuko da non hurrengo urterako helburuak eta landuko diren jarduerak bilduko diren, baita ere esparruak eta arduradunak, parte hartuko duten eragile sozialak, kronograma eta burutu beharreko jarduerari lotutako aurrekontua.

JARRAIPENA EGITEKO SISTEMA

Prozesu bat da programazioren dokumentuaren ezarpen maila ezagutzeko eta aurkitutako lorpenen eta zailtasunen inguruan hausnarketa egiteko, hala ere, egin beharreko aldaketak egiteko.

Jarraipena sei hilabetero egingen da, udal arlo arduradunak beteko dituzten *Jardueren Jarraipen Fitxetan* igorriko duten informazioa erabiliz.

BETETZE MAILAREN ETA EMAITZEN EBALUAKETARAKO SISTEMA

Prozesu bat da plangintzan ezarritakoaren betetze maila ezagutzeko. Hala ere, Planean ezarritako helburuak lortzeko bidean emandako aurrerapausuak.

Ebaluaketa bi urtero egingo da, udal arlo arduradunak beteko dituzten *Jardueren Jarraipen Fitxetan* igorriko duten informazioa erabiliz, betetze adierazleen eta emaitza adierazleen egoerari buruzko datuak bilduz.

Hala ere, beste teknika batzuk ere erabiliko dira, hala nola, banakako elkarrizketak, taldekako elkarrizketak eta herritarrei egingo zaizkien galde-

sortak; hauek guztiak, diagnostikoaren abiapuntu egoerarekiko izan den eboluzioa, burututako programazioa, jardueren onartze maila eta aurreikusitako emaitzen betetze maila ezagutu ahal izateko.